

FUNTSEZKO-JARDUERAK

Idea argia buruan izan ondoren, gure aplikazioa sortuko dugu informatiko baten laguntzaz, eta Internet inguruan daukagun ezagutzarekin.

Gure sustapen baliabideak garatuko ditugu.

Hasteko, aplikazioaren diseinuan, fokua jarriko dugu. Diseinu erakargarria, sinplea eta argia daukagu buruan, gainera, erabiltzeko erraza egin nahi dugu eta oso ondo adierazitakoa.

Aplikazioa sortua eta guztiz egituratuta izan ostean, publizitateari ekingo diogu, ahal ditugun komunikazio bide gehienak erabiliz.

Erabiliko ditugun lehen komunikazio bideak, sare sozialak izango dira, instagram-a adibidez. Instagram-aren bitartez, osasuntsuak diren elikagaiak gustuko dituzten pertsonak bilatuko ditugu, eta eskaintzak egingo dizkiegu, gero eta bezero gehiago lortzeko eta gero eta pertsona gehiago gure aplikazioa eta produktuak ezagutzeko.

Ondoren, elikaduraren eta elikagaien informazioa bilatu eta landuko dugu. Informazio hau era erraz batean transmitituko dugu gure bezeroei, guztiek ulertu dezaten. Baita ere hainbat hezkuntza sistemen arabera garatuko dugu kontzeptuak azaltzeko era.

Salduko ditugun produktuak, online denda baten bidez izango da. Produktuak organikoak eta naturalak izango dira; lokalak edo atzerrikoak.

Publizitatearen bitartez, kapitala lortzea espero dugu. Lehendabizi, gure hornitzaileen publizitatea egitea daukagu buruan, horren truke merkeagoak izatek haiei erositako produktu eta zerbitzuak, baina denbora pasatu ahala, beste enpresa batzuei buruzko publizitatea ere egin dezakegu.

Bezeroen eskariak haien helbideetara heltzeko, kontratatuko dugun garraio enpresa baten bitartez lortuko dugu.

